




Rikardo Arregi

Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942 - Mendaro, 1969). Idazle argi, sakon eta zorrotza, euskal prosa kazetaritzaren molde berrietan barrena abiarazi zuen. 1966ko urtarrilean Euskaltzaindiari alfabetatze saila antola zezan proposatu zion, eta huraxe izan zen euskalduntzeko mugimenduaren hasiera. Idazlan nagusiak *“Politika Estrukturak europear alkartasunean”* (1965); *“Politikaren atarian”* (1969); *“Herriaren lekuko”* (1972)...



ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalkuntzarako Lansaila



EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila

XII RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

99/2000

“Datorazko kazetaritza” ataleko saria: lehen oinarrian aipatutako epealdian
rentsa idatzian argitaratutako zutabeen eta irratian edo telebistan plazaratutako
emanaldi lanaren Epaimahaiaren iradokizuna denari
l honetan, idazlan edo/eta mintzaldia burrak izan
aiak aintzat hartu dituenak, tuaren kalitate arabera e
mahaiak saria horretarako kera edo nezu
n funtsa haren bitartean bainu beharbehartasun
idatziaren kasun edo a nola gertatzen hasuna bai
“Erreportajea” ataleko saria: lehen oinarrian aipatutako e
atxian argitaratutako epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
ango zailak haur era Epaimahaiaren iradokizuna denari
estiloa, oharak asuna, daren exhaustibotasunak
tu kontuan hartu txienez, oharak oharak
mahaiak aipatutako dituen epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
en oinarrian aipatutako epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
nezko eragilean Epaimahaiaren iradokizuna denari
io, eta saria erabakitzerakoan, erreportaiaren kalitatea e
gaiaren tratamendua kontuan hartzeaz gain, baloratu
ren eginaren kalitatea epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
iak. “Kazetaritza” ataleko saria: lehen oinarrian aipatutako e
i zuzendutako praktikatako saria: lehen oinarrian aipatutako e
bideren direnek eta saria: lehen oinarrian aipatutako e
nezko telebista ikasketa ofiziala epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
bideren lankidetzaren kontratu finkorik epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
oren batzuen dutenelartehar de epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
jardunea herriak diren oinarrian aipatutako e
zango dutenak, sari haren oinarrian aipatutako e
hal izangaririk atal honetan epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
o epean rentsa idatzitako epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
zko lan, erreportaia, epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
aiaren iritzian hoberen epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
ati eta telebistak, epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
orietatik guztietatik edozein epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
adlagoko komunikabideen epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari
i herria” saria jasotzeko lan epealdian Epaimahaiaren iradokizuna denari

XII RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

Kontuan hartuta euskararen normalkuntzak ezinbestez behar dituela euskaraz egindako kazetaritza eta, oro har, komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa, Andoaingo Udalak XII Rikardo Arregi Kazetaritza sarirako deialdia egiten du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:

1.- Sariaren xedea.

Euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren helburua. Horrela, bada, ondoren zehazten den urtebeteko epearen barruan egin izan diren kazetaritza-lanen kalitatea eta bikaintasuna jendaurrean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, epaimahaiak eredugarrien iritzitako lanak sarituz.

2.- Sari-atalak.

Ondoko bi atalotan banatzen da saria:

* *XII Rikardo Arregi Kazetaritza saria.*

* *Kazetari Berria saria.*

Aipaturiko bi sari horiez gain egoki edo beharrezko iritziz gero Aipamen Berezia egiteko aukera eskura du epaimahaiak.

Halaber, euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen Ohorezko Aipamena egiteko aukera ere aitortzen zaio epaimahaiari.

3.- Sari-atalen ezaugarriak.

1.- *“XII Rikardo Arregi Kazetaritza saria” izeneko atala.*

1999ko maiatzaren 16tik 2000ko maiatzaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek, hala nola aipatu epe eta komunikabide horietan kazetaritza-lanak plazaratu dituztenek daukate saria eskuratzeko aukera.

Edozein mota edo jenerotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Epaimahaiak, hortaz, inolako jenero-mugarik gabe erabakiko du saria.

Saria erabakitzeko irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako.

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera nabarmendutako artikulua edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat, kazetari bat, kazetari talde bat... horietarik edozer eta/edo edozein saritu ahal izango du epaimahaiak.

2.- *“Kazetari Berria saria” izeneko atala.*

Kazetaritzaren hastapenetan dabiltzanei zuzendutako saria da hau, eta, ondorioz, hogeitabost urtez azpikoek, hau da, 2000ko maiatzaren 15ean, artean, hogeitabost urte edo gutxiago izango dituztenek partehar dezakete atal honetan.

Herrietako aldizkari eta irrati eta telebistak, hala nola hedadura zabalagoko komunikabideak: horietatik guztietatik edozein izan daiteke 25 urtez azpikoek Kazetari Berria saria jasotzeko lana plazaratzeko erabilitako komunikabidea.

Edozein mota edo jenerotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Horrela, bada, 1999ko maiatzaren 16tik 2000ko maiatzaren 15era bitartean prentsa idatzian edo irrati eta telebistetan plazaratutako artikulua, erreportaje, informazio-programa, magazin eta barren artean kalitatea eta egokitasuna kontuan hartuz epaimahaiaren iritzian bikainena denari emango zaio saria.

4.- Lanak aurkeztea.

1.- *“XII Rikardo Arregi Kazetaritza saria” izeneko atalean* autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikustekorik duen edozeinek aurkez ditzakete lanak, beti ere 2000ko maiatzaren 25a baino lehen hurrengo puntuan adierazten den helbidera lanaren sei kopia bidaliz. Gainera, prentsa idatzian argitaratutako idazlanen kasuan, argitalpenaren kopia bat bidali beharko da, eta, irrati edo telebistako emanaldien kasuan, berriz, dagokion enpresak luzatutako emisio-ziurtagiria. Edozein modutara ere, nahikoa litzateke aipatutako argitalpenaren kopia edo emisio-ziurtagiriaren ordeza lana aurkezten duenaren beraren zinpeko aitortzen igortzea, argitalpen edo emisio eguna eta komunikabidea adieraziz.

Aditzera ematen da, nolanahi ere, saria eskuratzeko ez dela ezinbestekoa izango inork aldeztu aurretik lanak eta/edo proposamenak aurkeztea. Izan ere, epaimahaiak egokien iritzien duen moduan egingo ditu sari hori erabakitzeko egin beharrek jarraipen eta hautaketa lanak. Hala eta guztiz ere, lanak eta/edo proposamenak aurkez ditzaten dei egiten zaie autore, komunikabide eta sariaren helburuekin zerikustekorik dutenei.

2.- *“Kazetari Berria saria” izeneko atalean* saria eskuratzeko nahitanahiezkoa da lanak aurkeztea. Izan ere, atal honetako saria aurkeztutako artean erabakiko baitu epaimahaiak. Kasu honetan ere autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikustekorik duen edozeinek aurkez ditzakete lanak, 2000ko maiatzaren 25a baino lehen gero aipatzen den helbidera lanaren sei kopia bidaliz.

3.- Hona sarira aurkeztutako lanak bidaltzeko helbidea:

Andoaingo Udaletxea
XII Rikardo Arregi saria
Goikoplaza, z/g
20140 ANDOAIN

5.- Sariak.

“XII Rikardo Arregi Kazetaritza saria” eskuratzen duenari 1.000.000,- pezeta garbi emango zaio.

“Kazetari Berria saria” eskuratzen duenari 400.000,- pezeta garbi emango zaizkio.

Gainera, Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren kaxa oroigarria eta agiri-diploma jasoko dituzte saridunek.

Sariak zatietan dira, baina, hori bai, taldean edo elkarlanean egindako lanei ere eman dakieke saria.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du Epaimahaiak.

6.- Epaimahaia.

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

* **Mahaiburua:** Andoaingo Udaleko Alkate Jose Antonio Barandiaran jauna edo honek bere ordezkari gisa izendatutako udalkidea.

* **Mahaikideak:** Miren Azkarate andrea, Allande Boutin jauna, Joxerra Garcia jauna, Koldo Ordozgoiti jauna eta Iñaki Zabaleta jauna.

* **Idazkaria:** Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria, hizek baina hautespiderik gabe jardungo duena.

7.- Sarietako buruzko Azken Erabakia.

2000ko udan emango da aditzera sarietako buruzko epaimahaiak hartutako Azken Erabakia, apelazina izango dena.

8.- Baldintzak onartzea.

Sari honetara aurkezteak oinarriok onartzen ematea dakar berearekin saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.